

Liburuak

KRITIKA

Itzalen itzal.

Juan Garzia Garmendia.

Alberdania, 1993. 161 orrialde. 11,50 euro.



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

Noiz egingo dugu manifa?

ELKARRIZKETA joan den azaroan *Volgako Batelariak* blogean. Juan Garzia zuten solaskide; egindako galderen artean ea zergatik 1995eko *Fadoa Coimbra*n nobelaz geroztik ez duen berak eskribitutako ezer publikatu. “Zer pintatzen dut (edo nuke) oraingo euskal literaturan? –izan zen erantzuna– Ez da manifestaziorik antolatu, behintzat, nik dakidala, idaztera itzul nadin”. Galdera-erantzun haiek erakarrita abiatu nintzen Garziaren lanen peskizan eta hala iritsi da *Itzalen itzal* ipuin liburua nire eskuetara. Egokia iruditu zait ARGIAren kritika atal honetara ekartzeko, hilean behin nobedade ez diren literatur lanak ere mintzagai izango baititugu.

Sexuan bezala kritikagintzan on dira atariko lanak, baina ez da komeni gehiegi luzatzea ere. Mamira beraz: Italian girotutako hamaika ipuin bildu zituen Garziak Alberdaniak argitaratutako lehen liburu honetan; artelan klasikoek gordetzen dituzten sekretuak, elkar gurutzatzen diren pertsonaiak, istorio harrigarriak... 1993ko maiatzek ikusi zuen argia eta urte hartako abenduan Juan Luis Zabalak *Euskaldunon Egunkariako* orrietan zioenez, behar adinako oharpenik gabe geratu zen. *Pedanteria ala aurrerapauso?* zuen titulu Zabalaren kritika hark eta, besteak beste, liburuaren erudizioaz, estilo landuaz eta esaldi luzeez berba egiten zuen. Bestelako gauzak irakurtzen nenbilen, gaztetxo oraindik, baina badirudi duela hamabost urteko euskal letren panoraman liburu “zaila” zela *Itzalen itzal*.

2008ko begiekin, ez dut esango hau liburu arina denik. Ez du izan nahi, ez da kontsumo literatura. Egia da, esaldi batzuk korapilatsuak izan daitezke (“urteek bainoago urteetan ikusiek ematen duten, eta eskarmentua esan ohi zaion, argitasunaren eta etsipenaren arteko zer horrek aurki esan zion belarrira ez dagoela lor daitekeen guztia lortzea baino garaipen handiagorik”), baina uste dut zail-erraz dikotomiatik harago, Garziak islatu nahi zuen giroak eskatzen duela halako idazkera jasoa. Thomas Mannek ere ez zuen *Herioa Venezijan* arrandegiko hizkeran idatzi; *Itzalen itzaleko* Italiak dotorezia eskatzen du, hortik prosa landua.

Esango nuke obra hau Umberto Ecoren literaturaren zordun dela neurri batean eta –abentura hasiko dut– bidea urratzen ere lagundu zuela. Zergatik? Anjel Lertxundiren *Otto Pette* lako mugarrira argitaragabe zegoen 1993an, eta hartan ere Eco islatzen dela inork gutxik ukatuko du. Ez dut uste kasualitatea denik. *Itzalen itzalek* langa jarri zuen, ondoren etorri ziren lanek uste baino askoz gorago zegoela ikus zezaten.

Ez, ez da manifestaziorik antolatu Garziak berriro idatz dezan. Norbaitek asmorik balu, nire atxikimendua ziurtatua dauka.

Malcolm Lowryren poemak euskaraz

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak argitaratzen duen *Senez* aldizkariak 35. zenbakia kaleratu du. Edukien artean, besteak beste, Karlos del Olmok itzuli dituen Malcolm Lowryren poemak nabarmentzen dira. Duela bi aste orriotan Amaia Alvarez Uriak mintzagai zuen del Olmok berak itzultitako *Sumendiaren azpian* nobela. Hura zen orain arte Lowryri euskaratutako testu bakarra, eta aldizkari honetako poemek osatu egingo dute bere obra euskal irakurlearentzat.



Senez 35.
Batzuen artean.
EIZIE.
251 orrialde.

Gainontzean, azpimarratzekoa da Antton Elosegiri egin dioten elkarrizketa luzea, edo Umberto Ecoren *Ia gauza bera esatea* liburuaren sarreara, Ander Irizarrek euskaratua; Unai Elorriagak idazlea itzultzaile lanetan jartzearen esperientzia kontatu du eta softwarea lokalizatzeaz idatzi du Silvia Borrás Ginerrek. **I**

Herri Musikaren Txokoaren historia

2002an ireki zituen ateak Oiartzunen Herri Musikaren Txokoak. 1996an abiatu zen egitasmoa, Juan Mari Beltran musikariaren eta Oiartzungo Udalaren elkarlanarekin. Gunearen historia biltzen duen liburu honetan esaten den moduan, herri musikaren topaleku eta dokumentazio zentro izateko helburuarekin sortu zuten, arlo ugarietako jarduerak garatzea xede. Zentroak sei urteotan bete dituen zereginen artean honakoak: musika tresna tradizionalak kontserbatzea, tresnek tradizionalak izan duten erabilera ikertu eta zabaltzea eta tradizioak

gaur egungo gizartearen duen baliagarritasuna azpimarratzea. **I**



Herri Musikaren Txokoa Oiartzunen.
Juan Mari Beltran.
Oiartzungo Udala.
429 orrialde / 12 euro.